



Eskola kirolean hasi  
aurreko adinetan kirol  
jarduera hezkuntza-  
balioetan oinarritu beharra,  
eta ez lehiakortasunean.

Arartekoaren 2/2016 Gomendio  
Orokorra, otsailaren 16koa





## **Arartekoaren 2/2016 Gomendio Orokorra, otsailaren 16koa**

**Eskola kirolean hasi aurreko adinetan kirol jarduera hezkuntza-balioetan oinarritu beharra, eta ez lehiakortasunean.**

### **I. Aurrekariak**

Hainbat forotatik eta hainbat bidetatik (partikularren kexak, gizarte eta hezkuntza erakundeekiko bilerak, adituekiko eztabaidak...) kezka agertu izan da zenbait klubetan edota zenbait entrenatzailearen jardunean ikusten diren portaera eta jarrerengatik, oraindik eskola kirolean hasteko adina ez duten umeen kirol jardueraren esparruan. Jokabide hori agertzen dutenek, zehazki, entrenamendu eta partidetan protagonismoa ematen diete ume batzuei, beste batzuen kaltetan, lehiarako errendimendu handiagoa edo txikiagoa irizpidetzat hartuta. Hala, bere herriko futbol klubean jokatzen zuen zazpi urteko neskato baten amak kontatu digunez, entrenatzaileari galdetu zion zergatik ume batzuek minutu batzuk baino ez zituzten ematen jokoan, eta hau erantzun zion: "partida hau irabazi egin behar dugulako". Horrelako argudioak ez luke lekurik izango eskola kirolaren eremuan, indarra duten arauak direla medio. Adin txikiagoetan, ordea, badira argudio hori erabiltzen duten klubak eta, klubek udalen babesa duten neurrian, argudio hori onartzen duten udalak.

Erakunde honek badaki klub eta entrenatzaile gehienek egoki eta txukun betetzen dutela haur eta nerabeen kirol jarduera zuzentzeko eginkizuna. Hala ere, helburu hori beti errespetatuko dela bermatze aldera, Arartekoak komenigarritzat jo du gomendio orokor bat egitea gure toki administrazio guztiei, gogora ekartzeko bakoitzak bere udalerriko kirol klubei babesa emateko baldintza gisa eskatu behar diela, behar izanez gero, arloko lege-aurreikuspenak errespetatu ditzatela.

Horretarako, gaiaren egoerari buruzko informazioa bildu da Euskadi osoko 12 udalerrik osatutako laginean. Udalerrri horiek ez dira aukeratu horrelako arazoak detektatu zaizkielako, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrrien egoeraren adierazgarri izan daitezkeelako, oro har, kontuan izanik lurralde-banaketaren irizpidea (lurralde historiko bakoitzeko lau udalerrri), biztanleriarena (hiriburuak, tamaina ertaineko herriak eta herri txikiak) eta egiten den kirol jarduerarena. Honako hauek dira kontsulta egin zaien udalerrriak: Araban, Gasteiz, Laudio, Agurain eta Oion; Bizkaian, Bilbo, Durango, Gernika eta Trapagaran; Gipuzkoan, Donostia, Tolosa, Arrasate eta Legazpi. Horiei guztiei hau galdetu zaie: *“Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu udal horrek, azaldutako printzipioak adin txiki horietan beteko direla bermatzeko<sup>1</sup>, kirol jarduerak udalaren laguntza edo babes motaren bat jasotzen dutenean, dela instalazioen lagapena, dela diru-laguntza edo sustapena?”*.

Jasotako erantzun guztietan adierazten da erakunde honek azaldutako planteamenduarekiko adostasuna, eta, xehetasun maila desberdinekin, udalek aditzera eman dute nola eramaten dituzten printzipio horiek zuzenean edo zeharka euren ardurapean dagoen kirol jarduerara. Hala, esate baterako:

- Gasteizko Udalak adierazi du badaudela eskola kiroleko programan sor litezkeen gatazkak gainditzeko bideak, eta, bestalde, eskola kirola Foru Aldundiaren eskumenekoa dela eta Udalaren eginkizun bakarra instalazioak lagatzea dela.
- Aguraingo Udalak ere adierazi du Foru Aldundiak ezartzen duela lehiaketetarako araudia, joko denborak barne (hori berez eskola kirolari dagokiola ulertzen dugu). Nolanahi ere, lehiaketazko kirolerako diru-laguntzak kimuen kategoriatik (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak) ematen dira, gazteagoentzako eskaintza multikirolekoa baita.
- Bilboko Udalak esan du joera horrekin diseinatzen eta programatzen dituela bere jarduerak, eta horren isla dela lehiarik gabeko kirol jarduerarako programen eskaintza. Lehiaketazko kirolerako ematen dituen diru-laguntzak dokumentu honetan aztergai duguna baino adin handiagoko taldeentzat dira. Instalazioen lagapenean, agian, horrelako portaerak gerta litezkeela aitortu du. Esparru horretan badute erabilerari buruzko araudia, zehapenak aurreikusten dituen portaera ezegokia agertzen dutenentzat.
- Durangoko Udalak kirol jardueran berdintasuna bermatzeko klausula berezia ezarriko du laguntza ekonomikoetarako eta instalazioen lagapenerako 2016ko deialdian.
- Trapagaraneko Udalak kirola sustatzeko lehiarik gabeko jarduerak sartuko ditu kirolerako diru-laguntzetan, eta sentsibilizazio kanpaina egingo du.
- Donostiako Udalak ikastetxeen bitartez eta haiekin lankidetzan antolatzen ditu aurrebenjaminentzako jarduerak eta 12 urtera arteko kirol jarduerarako laguntza ekonomikoak, entitate horiek bereziki egokiak direlako kirolari

---

<sup>1</sup> Eskola kirola haur eta nerabeen garapen osoan lagundu behar duen jarduera gisa arautzen duten printzipioez ari da, eskola kirolaren izaera hezitzaile nagusia azpimarratuz.

hezkuntza-orientazioa emateko. Udal instalazioen erabileran, udal jarduerak ez dira lehiaketak, eta zeharkako kudeaketaren bidez egiten direnak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskola kiroleko programan sartuta daude; programa horrek bere hezkuntza-izaera nabarmena du ezaugarri.

- Leintz Eskola Kirola proiektuaren berri eman du Arrasateko Udalak, nahiz eta Leintz Ibarreko ikastetxe eta udal guztiek batera garatzen duten. Proiektu horrek 6-14 urte bitarteko neskato-mutikoentzako kirol eskaintza biltzen du, kirolaren bitartez garapen osoa lortzea helburu. Jardueren eskaintza eta udal laguntzak bat datoz helburu horrekin, aurkeztu diren memorietatik eta deialdien oinarrietatik ondorioztatzen denez.

Haietako batzuek, gainera, sarri askotan gizabanakoenak diren portaerei ekiteko zailtasuna aipatu dute. Aldi berean prest agertu dira arazoari buruz gogoeta egiteko eta konponbideak bilatzeko: 1) horrelako portaera ezegokiak ager daitezen eragozteko bideak; 2) agertuz gero, detektatzeko eta esku hartzeko bideak.

## II. Gogoetak

**II.1.** Berez, umeak 8 urterekin hasten dira eskola kirolean. Adin horretatik aurrera, administrazioak jabeturik daude haurren kirol jarduera arautzen duten printzipioak zaintzeko betebeharra dutela, bakoitzak bere eskumeneko eremuan, eta betebeharrak horrek baldintzatu behar duela udalek eta aldundiek kirol klub eta elkarteei ematen dioten babesak. Bitxia badirudi ere, adingabeak gazteagoak direnean eta oraindik benetako eskola kirolean hasi ez direnean, nor bere kirol klubarekin duen harremana, zenbaitetan, partikularren arteko kontu gisa hautematen da, administrazioek esku hartu ezingo balute bezala.

Erakunde honen iritziz, planteamendu hori ez da zuzena, bi arrazoirengatik: alde batetik, eskola kirolari buruz indarra duten printzipioen errespetua eskola kirolerako bezain beharrezkoa delako 8 urte bete aurretik egiten den kirolerako, edo are beharrezkoagoa; bestetik, udalen betebeharra delako esku hartzea, aipatutako kirol erakundeek, pribatuak izan arren, nola edo hala Udalaren laguntza edo babesak jasotzen duten neurrian.

**II.2.** Hizpide ditugun portaerak (hots, entrenamendu eta partidetan protagonismoa ematea adingabe batzuei, beste batzuen kaltetan, lehiarako errendimendu handiagoa edo txikiagoa kontuan hartzen duten irizpideei jarraituz), gertatzen direnean, nekez izan daitezke bateragarriak gure umeek kirolean egiten dituzten lehenengo urratsak gidatu behar dituzten printzipioekin. Erakunde honek printzipio horiek jaso zituen urriaren 27ko 6/2001 gomendio orokorrean, haurrek eta nerabeek egindako kirola, une oro eta edozein testuingurutan, hezkuntza parametroen arabera garatzen dela bermatzearen egokitasunari buruzkoan. Bertan honako hau adierazi genuen:

*3.1. Argi dago kirolak berezko indarra duela ahalegina, norbera gainditzea, frustrazioarekiko erresistentzia, autodiziplina, lankidetzak eta lan taldea, ezberdina/kontrakoarekiko errespetu baloreak, solidaritatea, etab. bezalako gaitasunak garatzeko. Indar horren garapenari hezkuntzaren ikuspegitik aurre egitean, bestalde, entrenatzaileek gure haurren eguneroko autoezagutze, ikaste*

*eta madurazio prozesuaren "laguntzaile, bultzatzaile eta orientatzaile" gisa duten papera azpimarratzen da. ...*

*3.2. Gehienek onartzen dute, eta horrela xedatzen dute arau eta politika publikoek, adin horietako kirol jardueraren helburuak hezkuntza duela oinarri. Kirol diziplina jakin baten trebetasun edota gaitasun teknikoak ikasi eta garatzea baino harago doa haurren erabateko hezkuntza osatzeko, norberaren eta gizartearen garapen osasungarria lortzeko balore positiboen hezkuntzan barneratuz. Horrek esan nahi du kirol jardueran bertan barneratzen dela hezkuntza aldagaia; gure haur eta nerabeen erabateko hezkuntza bultzatzen duten jarraibideak eguneroko eta ohiko jarduera bideratzeko, zuzentzeko eta orientatzeko moduan gaineratzen dira; balore positibo horiekin eta horien bidez garatutako kirol jardueraren bizipena aurrera eramanez bihurtuko dira gure adingabeen gaitasunen parte.*

Euskal Autonomia Erkidegoan kirolari buruz indarra duen araudiak joera hori jasotzen du eta bera lehenesten du, irizpide zuzena erabiliz, emaitzen eta lehiakortasunaren gaineratik. Euskadiko Kirolari buruzko uztailaren 11ko 14/1998 Legeak V. titulua eskaintzen dio eskola kirolari, kirol sistema osoaren giltzarrietako bat dela adierazten du, eta hezkuntza eginkizuna esleitzen dio nabarmenki. Hain zuzen ere hitzaurrean honako hau dio eskola kirolari buruz: *"Kirola garrantzitsua da eskolako ikasleen heziketa osorako, nortasunaren garapen harmonikorako eta baldintza fisiko eta prestakuntza egokiak lortzeko, gerora begira ere kirola egiten jarraitu ahal izan dadin"*

Horrelaxe jaso zen 2003-2007 aldirako Kirolaren Euskal Planean. Bertan eskola kirolaren helburu nagusia zehaztu zen: *"haur kirolariaren hezkuntza garapena osatzea eta kirolari bakoitzaren premiak asetzea"*. Bestalde, goian aipatutako legean adierazitakoa nabarmendu behar da, osagarri gisa: 1) berariazko ekarpena egiten du pertsonak gizartean berdintasun baldintzetan parte hartzeko, bereizkeriarik ez izateko eta estereotipoak gainditzeko; 2) bizimodu osasungarriak garatzea ahalbidetuko duten kirol jarduerak sustatzera bideratuta dago, ez bakarrik lehiaketari lotuta.

Bestalde, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak hau xedatzen du: *Haurrek eta nerabeek eskubidea dute kirolak eta jarduera fisikoak egiteko, eta saihestu egin behar da jarduera horietan lehiakortasuna lehenbiziko baliotzat sustatzea. Lehiaketa-kiroletan parte hartzea borondatezkoa izan beharko da, beti, eta entrenamendu plan eta metodoek errespetatu egin beharko dituzte haien egoera fisikoa eta hezkuntza-beharrizanak (34.3 artikulua). Lege beraren 35. artikuluan, administrazio publikoek euren eskumeneko eremuan sustatu behar dituzten printzipioak ezartzen dira; besteak beste, kirol jardueretan eta aisiako jardueretan parte hartzea, bai eskola ingurunean bai ingurune komunitarioan.*

Azkenik, Eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua aipatu behar dugu. Horren arabera, *haurrek eta nerabeek eskubidea dute kirolak eta jarduera fisikoak egiteko, eta saihestu egin behar da jarduera horietan lehiakortasuna lehenbiziko baliotzat sustatzea*. Ideia horretatik abiatuta haxe dio dekretuak: *Eskolako kirolaren helburu nagusia haur kirol-egilearen hezkuntza-garapena osatzea izango da, bai eta kirolari bakoitzaren banakako beharrizanak asebetetzea ere. Hala, eskolako kirolak haurren heziketa integrala bilatuko du, beren sarbidea eta*

*parte hartzea bermatuz berdintasunez eta sexu-estereotipo eta roletatik kanpo; haurren nortasuna era armoniatsuan garatzea bilatuko du, bai eta geroko adinetan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea eta bizimodu osasuntsua eramatea bermatuko duten baldintza fisiko eta kirol ohitura batzuk eskuratzea ere.*

*Eskola garaia da kirol praktikari ekiteko adin egokiena, garai horretako kirola haurren heziketaren osagai berezkozat hartu behar baita, balio positiboak transmititzeko bidetzat eta geroko kirol praktikaren bermetzat.*

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat, Arartekoak egokitzen jo du honako gomendio orokor hau egitea **Euskal Autonomia Erkidegoko udalei**:

### **GOMENDIO OROKORRA**

Berma dezatela euren udalerrietan haurrentzat antolatzen diren kirol jarduerak, batez ere eskola kiroleko programan hasi aurreko adinetarako antolatzen direnak, hezkuntzaren, parte hartzearen eta lehiarik ezaren irizpideetan oinarrituko direla, eta, behar izanez gero, baldintza hori jar dezatela udalaren laguntza edo babes jaso ahal izateko, dela instalazioen lagapen gisa, dela diru-laguntza edo sustapen gisa.

ararteko

Herriaren Defendatzailea

*Defensoría del Pueblo*